

# HONDAKINEN BILKETA SISTEMA HOBETZEKO PARTAIDETZA PROZESUA

2014-09-30. 1. SAIOAREN AKTA

## BILERAREN XEHETASUNAK:

- Bilera zenbakia: 1
- Data: 2014-09-30
- Lekua: Zabel kultur etxea
- Hasiera ordua: 15:00
- Amaiera ordua: 16:45



## DINAMIZAZIOA:

- Parte hartzaile kopurua: 7 merkatari eta sortzaile berezi (4 emakume eta 3 gizon)
- Joseba Palenzuela alkatea eta Jose Fran Muniozguren Agirrebeña Debabarrenako mankomunitateko gerentea.
- Dinamizatzaileak: Arkaitz Martinez de Albeniz eta Ekhi Oñate.

## 1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

Mutrikuko alkatea den Joseba Palenzuelak hartu du hitza, bertaratutako merkatari eta sortzaile bereziei ongietorria eman eta abiatzen den prozesu honen arrazoiak aurkeztu eta azaltzeko.

Hondakinen inguruan sortu den tirabirei konponbidea topatu nahian parte hartze prozesu bat abiatzea adostu dute alde guztiek, herri galdeketa batekin amaituko dena. Erabaki hau sortu den Hondakinen Batzordean ari da diseinatzen eta antolatzen. Batzordea Bildu, EAJ-PNV, Berdeak-Independienteak, bosgarren edukiontziaaren aldeko plataforma, natur taldea eta Mutriku Zero zaborrek osatzen dute.

Bestalde, Josebak, gaurko deialdia berezia dela azaldu die bertaratutakoei, merkatariak edota sortzaile bereziak izanik etxebizitzetan egiten denarekin bestelako bilketa egiten dutelako, bai biltzeko modu zein kopuruengatik.

## 2. PROZESUAREN KOKAPENA

Aurkezpenaren ondoren, prozesu honen antolaketa eta dinamizazio lanean arituko den Aztiker ikergune sozialeko Arkaitz Martinez de Albenizek hartu du hitza.

Prozesu honek dituen helburuak honakoak direla azaldu du:

- Gaur egun Mutrikuko **hondakinen egoera** eta bilketa sistema **ezagutu eta eztabaidatu**
- Bilketa sistema eta **aukera desberdinak ezagutu eta aztertu**
- Bilketa sistema berriak izan behar dituen **ezaugarriak proposatu**
- Mutrikurako hondakinen **bilketa sistema erabaki**
- Hondakinen **sailkatzea hobetzea**.
- Herritarrok **hondakinen inguruko kontzientzia** hartu

Hondakinen Batzordearen baitan, herri galdeketa eramango den/diren galderek baldintza hauek beteko dituztela adierazi du:

- %60ko gaikako bilketa-tasa bermatzen duten aukerak izango dira.
- Galderetako batek, behintzat, edukiontzi bidezko bilketa egitea ahalbidetuko du.

Prozesu hau bera kokatzeaz gain, nola bideratuko den azaldu du.

Gaurko saioak helburu hauek dituela azaldu du:

- Prozesuaren aurkezpena egitea
- Gaur egungo Mutrikuko hondakinen egoeraren aurkezpena egitea
- Partaideek egungo egoeraren azterketa egitea
- Hondakinen egoera hobetzeko gakoak identifikatzea

### 3. HONDAKINEN EGOERAREN AURKEZPENA

Jarraian, Debabarrenako mankomunitateko kide den Jose Francisco Muniozguren Agirrebeñak hartu du hitza Mutrikuko hondakinen egungo egoeraren berri eman du.

Lehenik, Mutrikuko biztanleriaren datuak eman ditu eta hondakinen bilketa zenbat frakziotan egiten den azaldu du. Kasu honetan, lau frakzio nagusietan burutzen delarik; papera eta kartoia, ontzi arinak, beira eta nahasia. Pilak, arropa eta olio biltzeko sistemak baldin badaude ere.

Gero, 2013 eta 2014.urteetako Mutrikuko sailkatze tasak alderatu ditu eta bereizi gabeko hondakinen osakeraren berri eman du.

Konpostari eta hondakinen tratamenduari buruz hitz egin ondoren, egungo sistemak sortzen dituen kostuei eta tasei erreferentzia eginez amaitu du.

### 4. GALDERAK ETA ERANTZUNAK

Azalpenen ondoren, tarte bat zabaldu da azaldutakoaren ingurukoari buruz galderak egiteko.

### 5. HONDAKINEN EGOERAREN AZTERKETA

Azalpenak entzun ondoren, talde txiki batean elkartu gara, gaur egun Mutrikun duten sistemaren atal ezberdinei indar guneak, ahul guneak eta hobetu beharrekoak identifikatzeko. Beti ere, sortzaile berezien ikuspegitik.

Mutrikun hondakinen egoeraren azterketa egiteko landu diren atalak hauek dira: gaur egun, Mutrikun sortzen duguna, gaur egun Mutrikun sailkatzen dugun hondakin kopurua, tratamendua, sistemaren funtzionamendua eta gastuak.



Hona hemen sortu den edukia:

	AHULGUNEAK	AHULGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
SORTZEN DUGUNA			
SAILKATZEN DUGUNA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Edukiontzi lurperatuak.</li> <li>Kamioiak kartoia biltzea.</li> <li>Beira ongi biltzen da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Edukiontziak askotan Beteta egoten dira.</li> <li>Edukiontziak askotan hausten dira.</li> <li>Pilak jasotzeko aukera gutxi.</li> <li>Sailkatuta jasotzeko edukiontzi gutxi dago.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Organikoa biltzeko aukera ematea.</li> </ul>
TRATAMENDUA			
FUNTZIONAMENDUA (Gertutasuna, ordutegiak, garbitasuna...)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ordutegi egokia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zikinkeri handia edukiontzien inguruetan.</li> <li>Informazio falta zer nora bota behar den jakiteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Edukiontziak gehiagotan garbitzea.</li> <li>Informatzea.</li> </ul>
GASTUAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>Garestiegia da.</li> </ul>	
BESTELAKORIK		<ul style="list-style-type: none"> <li>Heziketa falta.</li> <li>Garbigunea gainezka egoten da.</li> </ul>	

## 6. HONDAKIN SISTEMA HOBETZEKO GAKOEN IDENTIFIKAZIOA

Talde txikian jarraituz, partaide bakoitzak honako galderari erantzun diote:

**Zure ustetan ze helburu bete behar ditu Mutrikuko hondakin bilketa sistemak?**  
( parentesi artean ageri diren zenbakiek esaldi bakoitza errepikatua izan den kopuruari egiten diote aipua)

Honakoak dira markaturiko helburuak:

- %80 birziklatzea.(2)
- Organikoa jasotzeko aukera ematea.(4)
- Birziklatze tasak igotzea.(2)
- Erosoa izatea.(3)
- Garestiagoa ez izatea.
- Modu natural eta kontziente batean egitea.

## 7. PLENARIOA

Talde bakarra osatu denez, atera diren ideia nagusiak azaltzeko plenarioa taldean bertan egin da.

## 8. ITXIERA ETA HURRENGO URRATSAK

Dinamizatzaileak lan saioaren errepaso azkarra burutu ondoren, hurrengo hitzordurako zita gogoarazi die partaideei:

***Urriaren 7an 18.30tan Zabel kultur etxean mahai ingurua hondakin bilketa sistema desberdinak ezagutzeko.***

## 9. SAIOAREN BALORAZIOA

Irten aurretik, aretoaren sarreran ipiniriko karteltxoan saioaren balorazioa egiteko eskatu zaio parte hartzaile orori. Honakoa izan da partaideek egindako balorazioa:

	LAN EGITEKO MODUA	BILERAKO GIROA	SORTU DIREN EDUKIAK
😊	7	3	3
😐		4	4
😞			